

NOLA LORTU AUTORITATE POSITIBOA

Autoritatea izatea, eta ez autoritarismoa, oinarrizkoa da gure hurraren heziketarako. Muga eta helburu argiak ipini behar ditugu, zer dagoen ongi eta zer gaizki bereizi ahal izan dezan, baina gurasoen akatsik ohikoenetakoa gehiegizko tolerantzia da. Eta orduan arazoak hasten dira. Oreka batera iritsi behar da: nola lortu hori, autoritatea izateko?

Autoritatea gorantz doan balio bat da, eta guraso arduratsuek saiatu behar dute hori lortzen. Seme-alabekin ditugun jarduera zehatzen arabera lortzen edo galtzen da.

Hauek dira, sarritan, gurasoen autoritatea ahultzen eta indargabetzen duten akats nagusiak:

- **Permisibitatea**
- **Ezetz esan ondoren amore ematea**
- **Autoritarismoa**
- **Koherentzi falta**
- **Garrasi egitea. Gure onetik ateratzea**
- **Promesak edo mehatxuak ez betetzea**
- **Ez negoziatzea**
- **Ez entzutea**
- **Berehalako lorpenak exijitzea**

Seme-alaben aurrean prestigioa eta **autoritate positiboa** izaten laguntzen duten **jarduera zehatz eta positiboak**:

- Hezten dugunean zer **helburu** lortzea nahi dugun **argi** edukitzea.
- **Gauza zehatzak argi erakustea.**
- **Ikasteko denbora ematea.**
- **Saiakerak eta hobetzeko ahaleginak beti baloratzea**, ongi egindakoa nabarmenduz eta gaizki egindakoa albo batera utziz.
- **Etsenplua ematea**, indar morala eta prestigioa edukitzeko.
- **Gure semearengan/alabarengan konfiantza izatea.**
- **Ekitea, eta diskurtsoetatik aldentzea.**
- **Norbere akatsak onartzea.**

Eta oso garrantzitsua da kontuan hartzea teknika horiek **benetan eraginkorrak** izan daitezen bi faktore direla ezinbesteko: **maitasuna eta zentzu komuna**. Horiek izan ezean, ez dago ezer lortzerik.